

Hainbat udal etxebizitzatako maizterrak onartzeko eta aukeratzeko oinarri eta baldintzen plegua.

1.- Artikulua.- Helburua

1.1.Plegu honen helburua da zenbait udal etxebizitza alokairuan esleitzeko baldintzak zehaztea. Etxebizitza horiek ondorengo ezaugarri eta kokapenak dituzte:

| Helbidea | Azalera/Superficie | Gela kopurua Nº de habitaciones | |
|--------------------------|---------------------|------------------------------------|------------------------|
| Oleta 23 B- 1 A | 58,86m ² | 2 | garaje eta trastelekua |
| Oleta 23 B- 1 C | 48,86m ² | 1 | garaje eta trastelekua |
| Oleta 23 B- 2 C | 48,80m ² | 1 | garaje eta trastelekua |
| Oleta 23 B- 3 C | 48,89m ² | 1 | garaje eta trastelekua |
| Oleta 23 B- 4 C | 48,91m ² | 1 | garaje eta trastelekua |
| Iturmendi 12- behea A | 58,16m ² | 2 | garaje eta trastelekua |
| Iturmendi 12- behea B | 77,19m ² | 3 | garaje eta trastelekua |
| Iturmendi 12- behea D | 76,31m ² | 3 | garaje eta trastelekua |

1.2 Era berean, udalak deialdi honetatik ateratzen den itxaron zerrenda erabili ahal izango du, etorkizunean eskuragarri dituen udal etxebizitzak alokairuan emateko, bost urteko epean (zerrenda behin betikoz onartzen denetik).

2. artikulua.- Esleipendunek bete behar dituzten baldintzak

Udal etxebizitzak alokairuan hartzeko hautagai izan daitezke ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo elkarbizitza unitateak:

a) Adina.

Alokairu kontratuen titular izango diren guztiak adinez nagusiak izan beharko dute.

b) Bizilekua.

Gutxienez bizikidetza unitatek pertsona batek Hernanin edukitzea bere ohiko bizilekua eta bertan etengabe errolatuta egotea azkeneko 2 urteetan, edo gutxienez 5 urteetan azkeneko 10etan, edo Hernanin lan egin izana azkeneko 10 urteetan.

c) Etxebizitza beharra:

Bizikidetza unitateko kideetatik inork ezingo du etxebizitzarik eduki, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu ahal izateko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen terminoetan.

d) Diru sarrerak:

Urteko diru-sarrera haztatuak 3.000 € eta 39.000 € artekoak izan beharko dira.

Diru-sarrera konputagarriak, haien ponderazioa, jatorria eta jasotzaileak etab. zehazteko, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa jarraituko da.

e) Erregistro ofizialean alta emanda egotea

Eskatzaileak, eskaera udalean aurkeztu aurretik, Etxebideko etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emanda edota izen emateko eskaera aurkeztuta izan beharko du 2019ko urtarrilaren 31ko data baino lehen (data hori barne) alokairuko etxebizitza eskatzaile gisa.

3. artikulua.- Etxebizitzaren alokatze eta erabilera baldintzak

Oinarri hauen gai diren etxebizitzak babes ofizialeko araubidearen araudi partikularretatik ondorioztatzen diren debeku eta mugak errespetatu behar dituzte eta, bereziki hauek:

- a) Maizterrak etxebizitza okupatu eta bere bizileku ohiko eta iraunkor bilakatu beharko du eta ezin izango du hutsik mantendu, bigarren bizilekutzat eduki edo baimenik gabeko beste erabilerarik eman. Bi hilabetez baino denbora gehiagoz hutsik utzi beharko badu, maizterrak idatziz eta alde aurretik horren berri emango dio Udalarari eta hutsik uztearen arrazoiak azalduko dizkio. Obligazio horiek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango dira.
- b) Maizterrak ezin izango du inolako obrarik edo hobekuntzarik egin, Hernaniko Udalak alde aurretik adostasuna idatziz eman ezean.
- c) Maizterren konturakoak izango dira:
 - * Etxebizitza eta etxebizitzaren elementu amankomunak erabiltzetik sortzen diren gastuak eta kontsumoak: energia elektrikoa, ura, telefonoa, gasa, etab., eta hondakinen eta saneamenduaren tasa ordaintzea.
 - * Etxebizitza mantentzeko Jabeen Komunitateak aldizka-aldizka igortzen dizkion ohiko gastuak.
 - * Maizterrak etxebizitzari erabilera txarra emateagatik sortutako kalteak.
- d) Halaber, maizterren betebeharrak izango dira komunitate gastu arrunten kuotak ordaintzea dagokien atariko bizilagunen bileretan parte hartzea, eraikinaren garbiketa orokorreko lanak eta konponketa txikiak egitera konprometitzea (giltzak, kristalak, bonbillak,...) eta kontzeptu horientatik.
- e) Udalaren kontura izango dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) eta Jabeen Komunitateak igorritako ezohiko gastuak.
- f) Maizterrak etxebizitza eman zioten baldintza berberetan utzi beharko du, alokatua dagoen bitartean egindako erabilera normalaren ondoriozkoak salbu; hala egin ezean, ez zaio fidantza itzuliko.
- g) Oinarri hauetan, eta babes ofizialeko araudian espresuki aurreikusita ez dagoen guztian, Hiri Errentamenduen Legean aurreikusitakoa aplikatu da.

4. artikulua.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Eskabideak onartzeko baldintzak benetan betetzen ote diren egiaztatzeko lanak udalak egingo ditu zuzenean, edo Etxebide zerbitzuaren bidez.

Nolanahi ere, udalak baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko beharrezko jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei.

5. artikulua.- Kontratuen iraupena

Alokairu kontratuak urtebetekoak izango dira, errentamendua dokumentu administratibo batean formalizatzen den datatik aurrera. Adostutako iraupen-epareen epemuga iritsita eta indarrean dagoen Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, kontratua urtetik urtera luzatuko da hiru (3) URTEZ, salbu eta maizterrak errentatzaileari jakinarazten badio ez duela kontratua berritzeko asmorik, gutxienez kontratua edo kontratuaren edozein luzapen amaitzeko ezarrita dagoen eguna baino hogeita hamar egun lehenago.

Aurreko paragrafoan deskribatu den HIRU (3) urteko derrigorrezko gehienezko epea behin amaituta eta, betiere, errentariak kontratu honek hizpide duen etxebizitza eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen badu, kontratua urtebeteko epean luzatuko da, BI (2) urtez gehienez ere, salbuespen batekin: errentariak edozein luzapen amaitu baino hogeita hamar egun lehenago, gutxienez, errentatzaileari berritzeko asmorik ez duela jakinarazten badio.

Klausula honetako 1. parrafoan ezarritako epea bukatutakoan edo 2. parrafoan ezarritakoaren arabera legez eman diren luzapenak bukatutakoan, maizterrak etxebizitza Udalaren esku utziko du, inolako errekerimendurik egiteko beharrik gabe.

6. artikulua.- Hasierako hileko-errenta, berrikusketak eta ordaintzeko modua.

Hernaniko Udalaren eta maizterraren arteko alokairu kontratuak honako klausula hauek edukiko ditu:

- a) Pisua okupatu baino lehen, lehenengo hilabetekoari dagokion zenbatekoa ordainduko da fidantza gisa.
- b) Ordaindu beharreko gehieneko errenta kalkulatzeko Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburuak 2010eko azaroaren 3an babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioak zehazteari buruz emandako aginduan xedatutakoa hartuko da kontuan, eta etxebizitzetarako eta haien eranskinetarako indarrean dagoen salmenta-prezioari legez eska dakioken ehuneko aplikatuko zaio. Ehuneko hori bizikidetzaren unitate errentariaren urteko diru-sarreraren arabera ezartzen da. Diru-sarrera horiek, bestalde, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak ezartzen duenaren arabera konputatuko dira alokairu kontratua sinatzen deneko datan.
- c) Alokairu kontratuak edo kontratuaren luzapenek, irauten duten bitartean, urteko errenta automatikoki eguneratuko da kontsumorako prezioen indizeak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako aldaketa portzentualaren arabera. Errenta eguneratzeko eguneraketa egin beharreko unean ofizialki eskura dagoen urte arteko azken indizea aplikatuko da.
- d) Alokairu kontratua formalizatzeko orduan maizterrak alokatzaileari jakinarazi behar dio zein banku edo aurrezki kutxako kontu korrante edo libretara igorri behar zaizkion maizter den aldetik ordaindu behar dituen hileko kuotak, zergak eta udal tasak. Kuotak aurreko hilean ordainduko dira, hilaren bata eta zazpia artean.

7. artikulua.- Esleitzeko prozedura.

Etxebizitzaren esleipena prozesura onartutako pertsonen edo bizikidetzaren unitateek lortutako puntuazio-ordenari jarraituz egingo da, beti ere artikuluko honen 8.paragrafoan xedatutako baremoa aplikaturik.

7.1.- Eskumenak eskuordetzea:

Oinarri eta baldintzen plegu hau jendaurrean ikusgai jarri ondoren eta Hernaniko Udalaren Osoko Bilkuran behin betiko onartu ondoren, etxebizitzak esleitzeko espedientearen gainerako izapidetzeak eta ebazpena dagokion udal organoaren esku utziko du udalak.

7.2.- Hasiera:

Aukeraketa prozesua iragarki baten bidez hasiko da. Iragarki hori GAOn, eta udalaren web orrian argitaratuko da eta eskabideak aurkezteko epea irekitzeari buruzko informazioa eta pleguan jasota datozen baldintzen laburpena plazaratuko ditu.

7.3.- Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera:

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duen orok parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko du, eranskineko ereduaren arabera, eta horrekin batera, eskatzaileak eta elkarbizitza unitateko kideek sinatutako baimena aurkeztuko da, udal administrazioak, interesatuek emandako datuak egiaztatzeko helburuz, egoki iruditzen zaizkion erakunde publiko edo erregistro publiko guztietara jo ahal izateko. Baimen hori aurkezten ez bada, datu ezkutaketatzat eta eskatzailearen uko egitetzat hartuko da eta, ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: elkarbizitza unitatea osatzen duten kide guztien NANen eta, hala badagokio, familia liburuaren fotokopiak, eta Etxebide Etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria edo izena emateko eskaeraren kopia, sarrera zigilua jarrita duela.

Pertsonako edo elkarbizitza unitateko eskaera bakarra onartuko da eta ezinezkoa izango da pertsona bera, aldi berean, elkarbizitza unitate bat baino gehiagoko kide izatea. Kide bat baino gehiagoko elkarbizitza unitateen kasuan, eskarian kide guztien datuak jaso beharko dira eta guztien informazio egokia eman beharko da, oinarri hauen arabera.

Eskatzaileak eskaera orrian zehaztu beharko du zein prozesutan parte hartu nahi duen. Ezingo da prozesu batean baino gehiagotan parte hartu.

7.4.- Aurkeztutako eskarien zuzenketak.

Eskari bat zuzena ez izatea gertatuz gero, edo dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da antzemandako akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko.

Akatsa aipatutako epean zuzentzen ez bada eskaerari uko egin zaiola ulertuko da eta hautaketa prozesutik zuzenean kanporatzeko arrazoi izango da.

7.5.- Dokumentuak epez kanpo aurkeztea.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen diren dokumentuak ezin badira dokumentuak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko epeen barruan eskuratu, gerora ere aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, dena delako dokumentuen eskaeraren kopia zigilatua aurkeztu beharko da, erakunde publikoen edo erregistroen kasuan, edo dokumentua eskatu izanaren frogagiria sinatua eta zigilatua, erakunde pribatuen kasuan.

Eskaera horrek bai egon beharko du egina dokumentuak aurkezteko edo zuzentzeko epearen barruan. Bestela hautaketa prozesuari uko egiten zaiola ulertuko da.

Dokumentazioa modu horretan aurkeztu ahal izango da web orrian behin-behineko zerrendak argitaratu eta hamar eguneko epean gehienez. Pertsona hauek behin-behineko zerrendetan onartuak izan daitezten beharrezkoa izango da dokumentu horien bidez egiaztatzea oinarri honetan ezarritako baldintzak benetan betetzen dituztela. Prozesuaren une honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada ulertuko da uko egiten zaiola, eta behin betiko zerrendetatik kanporatzea eragingo du.

7.6.- Epea

Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa aurkezteko epea 20 laneguneko izango da. Epea prozeduraren hasieraren iragarkia Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuko da.

Eskaerak Udaletxeko Erregistroan aurkeztu beharko dira. Epea azken laneguneko 19:00etan bukatuko da.

7.7.- Onartuen eta baztertuen zerrenda.

Alkatetzaren dekretu bidez Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan dauden datuen arabera prozesuan parte hartzeko onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko da, barematu ondoren lortutako puntuazioarekin, eta zerrenda hori ikusgai jarriko da udalaren web orrian, interesatuek bidezko jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten 10 eguneko epean.

Udalak ofizioz konprobatuko du, erakunde publiko, erregistro eta erakunde pribatuen bidez, eskaeretan emandako informazioa egiazkoa ote den.

Alegazioak erantzun ondoren eta, hala badagokio, behin-behineko zerrenda zuzendu ondoren, Udalak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du. Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du behin betiko zerrenda.

Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da edo, aukeran, batzarrari berari berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean.

7.8.- Baremoa.

Honako hauek dira barematzeko irizpideak:

- a) **Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko alokairu araubideko inskripzioaren antzintasuna:** 5 puntu emango dira antzintasunik handiena duen bizikidetz-unitateko kidearen inskripzio-urte bakoitzeko. Gehienez 25 puntu 5 urte edo gehiagoko antzintasuna duten eskaerentzat, eta proportzionalki gainerako kasuentzat. Urte bete baino gutxiagoko antzintasunaren kasuan gutxienez puntu bakarra emango da.
- b) **Bizikidetz-unitateko kide kopurua:** Bizikidetz-unitateko kide bakoitzeko 5 puntu emango dira; horretarako, hauek baino ez dira kontuan hartuko: titularrak, horien seme-alabak eta etxean erroldatuta dauden edo bisita-araubidea judizialki onartuta duten horien legezko tutoretzapeko edo familia-harrerapeko pertsonak. **Gehienez 30 puntu** 6 kide baino gehiagoko eskaerentzat eta gutxienez 5 puntu kide bakarreko eskaerentzat.
- c) **Diru-sarrerak: gehienez 40 puntu.** 3.000 eta 9.000 euro arteko diru sarrerak dituzten eskatzaileei, 40 puntu; 9.001 eta 15.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenei, 30 puntu; 15.001 eta 25.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenei, 20 puntu eta 10 puntu 25.001 eta 39.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenei.
- d) **Errolda: gehienez 25 puntu**, honela banatuko dira:

- 25 puntu, gutxienez titularretako bat azken 10 urteetan jarraian Hernanin erroldatua egoteagatik.
- 15 puntu, gutxienez titularretako bat azken 5-10 urte artean jarraian Hernanin erroldatua egoteagatik.
- 5 puntu, gutxienez titularretako bat azken 3 eta 5 urte artean jarraian Hernanin erroldatua egoteagatik, edo 3 eta 10 urte artean ez jarraian.
- 1 puntu gutxienez titularretako bat 3 urtetik behera Hernanin erroldatua egoteagatik.

e) Etxebizitza-premia berezia*: 10 puntu emango zaizkio etxebizitza-premia bereziko kolektiboren bateko titularraren bat duten espedientei. Kolektibo bat baino gehiagoko kide direnei 10 puntu emango zaizkie horietako bakoitzeko, **gehienez 30**.

* Deialdi honi dagokionerako etxebizitza-premia berezia duten eskatzaileak edo bizikidetz-unitateak hauek izango dira: haien titularretako bat kolektibo hauetako kidea diren haiek: guraso bakarreko familiak, genero indarkeriaren biktimak, legez dibortziatuak edo banatuak eta gerora sortutako ordaintzeko ezinagatik ohiko etxebizitzaren jabetza galdu dutenak.

Berdinketak hausteko, eskaerak Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan sartu zireneko datak hartuko dira kontuan.

Etxebizitzak logela gehien dituztenetik hasita esleituko dira, puntuaketa handiena lortzen duten bizikidetz-unitateen artean.

7.10.- Etxebizitzen esleipendunen zerrendak:

Esleipendunen zerrenda udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko da.

Behin betiko zerrendak onartu ondoren esleipendun bakoitzari jakinaraziko zaio alokairuko etxebizitza bat esleitu zaiola. Eta 10 eguneko epea emango zaio esleipena onartzeko eta adieraziko zaion epean kontratua formalizatzeko konpromezua idatziz adierazteko.

7.11. Itxaron zerrenda

Esleipena amaitutakoan, etxebizitzarik eskuratu ez dutenek osatutako itxaron-zerrenda egingo da, baremazioan lortutako puntuaketaren hurrenkera jarraituz.

Aipatu itxaron zerrendak bost urteko balioa izango du. Zerrenda horretara joko da, sor daitezkeen bakanteak betetzeko (uko egiteagatik edo betekizunak ez betetzeagatik sor daitezkeen bakanteak.....) eta Udalak alokairuan emateko izan ditzakeen etxebizitzak esleitzeko, aipatu denboraldi horretan.

7.12.- Kontratua

Etxebizitzen esleipendunek esleipena onartu eta gero udalak, alkateak ordezkaturik, esleipena formalizatu egingo du, dagokion kontratua eginez.

Kontratuaren eraginkortasuna espresuki lotuta egongo da esleitutako etxebizitzak giltzak eman eta hiru hilabeteko epean okupatzeko baldintzarekin. Baldintza hori betetzen ez bada dena delako etxebizitza itxaron zerrendako dagokion pertsonari esleituko zaio (aldez aurretik hasierako esleipendunari entzunaldia emango zaio eta harekin izenpetutako kontratua desegin egingo da).

Dokumentazioa aurkezten ez bada, kontratua epean izenpetzen ez bada, fidantza ordaintzen ez bada edo

esleipenduna lokalizatzen ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako metodo guztiak agortu ondoren, ulertuko da esleitutako etxebizitzari uko egiten zaiola, eta horrek alkateari ahalmena emango dio hutsik geratutako etxebizitzarentzat beste esleipendun bat aukeratzeko, dagokion zerrendaren hurrenkerari jarraituz.

Kontratua egin aurretik berriz ere egiaztatuko da ea esleipendunek plegu honetan jasotako eskakizun guztiak betetzen ote dituzten. Alkatearen ebazpen bidez baliorik gabe utziko dira une honetan bizikidetzaren baldintza betetzen ez dutenei egindako esleipenak, edo lehendik betetzen ez zituztela egiaztatzen bada. Ebazpen horren aurka Alkatezari berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

Alokairu kontratuak bizikidetzaren unitateko kideek izenpetuko dituzte. Alokairu kontratuen ondoriozko betebeharrak izaera solidarioa izango dute errentarientzat.

7.14.- Jakinarazpenak egiteko bidea.

Plegu honetan adierazitako moduak eta lekuak bakarrik izango dira gerora egin beharreko argitalpenak egiteko bidea.

8.- Etxebizitza hutsak.

Alokairu kontratua desegitearen ondorioz hutsik geratzen diren etxebizitzak alkatearen ebazpen bidez esleituko dira berriz, hautaketa prozesuaren ondorioz eraturitako itxaron zerrendaren arabera, aurretiaz esleipendunak etxebizitza hauen onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Diru sarrerei dagokionez, alokairu kontratua formalizatzen deneko aurreko urteko zerga ekitaldia hartuko da oinarritzat.

9.- Behin betiko esleipenaren ondoko betebeharrak.

9.1.- Etxebizitza hauetakoren baten esleipendunak alokairu kontratua gauzatzearekin lotutako formaltasunak bete behar dituzte. Esleipenduna justifikaziorik gabe kontratua izenpetzeko ekitaldira agertzen ez bada ulertu ahal izango da pertsona horrek esleipenari uko egin diola eta, beraz, itxaron zerrendako hurrengo pertsona edo bizikidetzaren unitateari aukera eman ahal izango zaio

9.2.- Alokairuko udal etxebizitzaren lagapena eta beharrezko baimentzea.

Alokairuko udal etxebizitza esleipendunen ohiko etxebizitza iraunkor gisa erabili behar da.

Esleitutako alokairuko udal etxebizitzak ezingo dira errentamenduan ez eta prekarioan laga, salbu eta Hernaniko Udalak hori egiteko baimena espresuki ematen badu.

Bestalde, aipatutako dokumentuetan obligazio hau jasoko da: maizterrak behartuta daude Hernaniko Udalaren udal administrazioaren ikuskarpen zerbitzuei laguntzera hala egin dezatela eskatzen bazaie, hots, bertan bizitzeko betebeharrak betetzen ote den egiaztatze eskatzen dizkieten agiriak eman beharko dizkiete udal ikuskariei.

10.- Eskumena daukan jurisdikzioa.

Oinarri hauetatik eratorritako kontu eta auziak argitzeko Jurisdikzio eskumenduna Administrazioarekiko Auziena izango da.

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, edo zuzenean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998

Legean aurreikusitako era eta epeetan.

11.- Datuen babesa

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legea betez, jakinarazten da eskatzaileek emandako datuak eta eskatzaileen baimenaz baliatuz jaso daitezkeenak udal honek dauzkan fitxategietan sartuko direla, oinarri hauetan ezarritako helburuari begira tratatuak izan daitezzen.

12.- Araudi osagarria.

Oinarri hauetan jasotzen ez denerako, Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzaren aplikatuko da araudia, hots:

Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta lurzoru eta etxebizitzaren gaineko neurri finantzarioei buruzkoa.

2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburuarena, etxebizitzaren eskatzaile errejistroari eta Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eta Errejimen Autonomikoko Bizitoki Dotazionalen esleipenerako prozedurei buruzkoa.

2010eko azaroaren 3ko Agindua, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa.

2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak lortu ahal izateko urteko dirusarrera haztatuen mugak aldatzen dituena.

13.- Baldintzak ez betetzea.

Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak ez betetzeak, baremazioan sar daitezkeen inguruabarrei buruzko datuen faltutasunak eta, oro har, etxebizitza sozialen araudia ez betetzeak kontratuaren hutsaltzea eta etxebizitza itxaron zerrendan dauden hautagaien artean berriro esleitzea eragingo dute.

Hernanin, 2019ko otsaila